



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
Izaskun Altxu Ariztegi
Mikel Gereka Zelaia

2019ko maiatzaren 7an, 17:00ak direnean, ez-ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztana —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Aurreko bilkuretako aktak irakurri ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 5
Abstentzio 2

Aurreko bilkuretako aktak onartzea.

2.-ESKABIDEAK.

2.1 Iturengo San Martin parrokiaren izenean Tiburcio Sanzberro Iriartek, Elizako Kanpo Santu, Sakristia eta Eliza beraren inguruetan, eraikinen egoera arriskuan jartzen duten zuhaitzak daudela aipatu ostean, Udalari zuhaitzak mozteko eskaera egin dio. Udalbatzak eskaera aztertu ostean hurrengoa erabaki du:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Zuhaitzak udalarena den lurztian dagoen baieztatzea.

2.- Zuhaitzak udalarena den lurzatian baldin badaude, eskaera onartzea eta zuhaitzak moztea.

2.2 Udalbatzak Blanca Urroz Garralda anderearen eskaera aztertu ondoren, hurrengoa erabaki du:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Paretaren egoera ikusi eta auzolanean konpontzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2.3. Udalbatzak Luis Ricardo Cumba Cumba jaunaren eskaera aztertu ondoren, hurrengoa erabaki du:

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Festetan postua jartzeko baimena ematea.

2.4. Udalbatzak Kenari Erasun San Sebastian jaunaren eskaera aztertu ondoren, hurrengoa erabaki du:

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Eman zitzaion sakabanaturiko zuhaitz aprobetxamendua berrestea.

2.- Aprobetxamenduaren truke, basozainak egin duen balorazioaren ostean, 708 euro kobratzea.

2.5. Udalbatzak Juan Angel Mutuberria Oteiza jaunaren eskaera aztertu ondoren, hurrengoa erabaki du:

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Eskatutako haritz eroriaren aprobetxamendua berrestea (1. Poligonoko 228. Lurzatian dagoena).

3.- MOZIOAK

Ez dago moziorik.

4.-ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Udalburuak alkatetzaren ebazpenak (29019/14tik 2019/16ra) irakurri ondoren, bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 5



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Abstentzio 2

Ebazpenak berrestea.

5.-HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Energía, mehatze eta Industria-segurtasuneko Zuzendariak 53/2019 Ebazpenaren bidez Nedgia Navarra S.A. enpresari, energía saretzeak hedatzeko emandako baimena Iturenen; Ingurugiroko Zerbitzuaren Zuzendariak 141/2019 Ebazpenaren bidez onarturiko sakabanaturiko zuhaitzen aprobetxamendua; Toki Administrazioko Zuzendari Nagusiak 545/2019 Ebazpenaren bidez, Marizeneko zubia konpontzeko diru laguntza eta horren onrdainketa onartzen duena; Ingurugiroko Zerbitzuak herritarrei onarturiko oihan aprobetxamenduak- Jose Mari Alzuri Vértiz, Jose Angel Ayoroa Hualde eta Eustaquio Bazterrica Mutuberria- ; Ingurugiroko Zerbitzura zuzenduriko oihan aprobetxamendu eskaerak -Francisco Javier eta María Teresa Sagardia Armisen-.

6.- HERRIAREN TXANDA GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 17:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.